

Donostiako 41.



Nazioarteko Zinemaldia

## Marc-Henri Wajnberg: «Jazz inguruko jendearen arteko erlazioa jaso dut»

Zuzendariak 'Just Friends' pelikula aurkeztu zuen Sail Ofizialean

**M**arc-Henri Wajnberg zuzendariak 'Just Friends' izeneko bere *opera prima* aurkeztu zuen atzo Sail Ofizialaren barnean, Josse de Pauw aktorea eta Archie Shepp jazz musikari ezagunaren konpainian. **Jazza, izan ere, «filme honetako motorea da», zuzendariaren esanetan.**

A. GOSTIN / DONOSTIA

'Just Friends' adiskidetasunean oinarritutako istorio bat dela esan zuen Marc-Henri Wajnberg zinemagile belgikarrak proiektio ondoko ohizko prentsaurrekoan. «Jazza filmeko motorea da, hondo-hondoko oihala, baina, funtsean, pelikulak jazzaren inguruan bizi den jendearen arteko erlazioa jasotzen du, adiskidetasun harremanak, alegia». Harreman horrek Bertrand Tavernier zuzendari frantsesak orain dela urte batzuk filmatutako 'Round Mignith' gogorarazten du, baina Wajnbergekin aitortu zuenez, bere gidioa askoz aspaldikoagoa da. «Jatorrizko testua duela hamar urte idatzi nuen eta, beraz, ez da Tavernierren pelikularekin eraginik nire obran. 'Just Friends' bizitza eta adiskidetasunari buruzko filma da eta 'Round Mignith-ek', berriz, jazzarekiko maitasunaz hitz egiten du, musikaren heriotzaz», adierazi zuen zuzendari eta ekoizle belgikarrak.

Pelikula berez nahikoa errealista da, baina tartean zenbait eszena erdi surrealista erantsi dizkio Wajnbergekin. Hori «belgika-



'Just Friends' filmeko ordezkarri nagusiak.

ANDER GILLENEA

ren berezko surrealismoari» egotzi zion zuzendariak, «errealitatea aldatu eta sentimendu kontrajarririk azaldu nahi baini-tuen. Horrela, bukaerako eszenan ez dago oso garbi zer gertatzen den bikotearen artean ez eta gizonezkoa New Yorkera joango ote den ere. Bukaera irekia utzi nahi izan dut».

'Just Friends' 50eko hamarkadaren bukaeran girotuta dago, baina gaur egungo egoerara ekar litekeela uste du zuzendariak: «Planteatu ditudan arazoak oso atemporalak dira. Dena den, badira garai hori aukeratzeko zenbait arrazoi, orduantxe hartu baitzuen jazzak indarra gure artean. Bizirik irauteko eragozpen asko zituzten musikariek sasoi hartan eta horrek ere bazuen baliorik guretzat. Azkenik, gidoigileetako bat belaualdi horretakoa da eta gertu-gertutik ezagutzen zuen garaia».

### ARCHIE SHEPP ETA DE PAUW

Wajnbergekin batera, Archie Shepp jazz musikaria eta 'Crazy love' filmeko protagonista nagusia izan zen Josse de Pauw aktorea egon ziren prentsaurrekoan. Jazzlariak lehen ere egin zituen zenbait kolaborazio zinemaren eta ondo moldatu da proiektu berrian. «Danimarkan, Dakarren eta beste zenbait tokitan ibili izan naiz lehendik ere. Tavernierren 'Round Mignith-en' ere lan egin behar nuen baina zerrendako bigarrena nintzen eta Gordonekin bete zuten rol nagusia. Dena den, antzerki lan batzuetan hartu dut parte eta badut alde horretatik esperientziarik».

Aktoreak, berriz, saxofoia jotzen ez dakielako aitortu zuen «eta jotzeko asmorik» ere ez duela adierazi. «Ikastaro batzuk hartu nituen, batez ere behatzen mugimenduak bizitu eta arnasa kontrolatzen jakin ahal izateko».

A. GOSTIN

### 'JUST FRIENDS'

**Zuzendaria:** Marc-Henri Wajnberg. **Gidoia:** Marc-Henri Wajnberg, Pierre Stercx, Alexandre Wajnberg. **Argazkia:** Remon Fromont. **Musika:** Michel Herr. **Aktoreak:** Josse de Pauw, Ann Gisel Glass, Charles Berling.

## Nahi eta ahal izan

Jazz musikak protagonismo berezia hartu du zeluloidean azken urte



hauetan eta zinemaren antologiatarasatutako diren bizpahiru filme ere eragin ditu. Bertrand Tavernierren 'Round Mignith' melankolikoa eta Clint Eastwooden 'Bird' tragikoa, besteak beste. Marc-Henri Wajnberg belgiararen pelikula honek bi horiek utzitako arrastoari jarraitu dio, gidioa horiek filmatu baino hamar urte lehenago idatzi zuela aitortu duen arren, eta aurrearen adiskidetasun kanta eta bigarrenaren pertsonaia nagusia ostu ditu istorio jator bezain arin, atsegin bezain sinplea egiteko. Charlie Parkerren itzala astunegia da gauza onerako ordea, eta belgiararen ariketa denborapasa apal eta aise ahazteko modukoa besterik ez da gertatu.

Saxofoi jole batek Belgika utzi eta New Yorkera aldegitoko duen ametsaren inguruko akordeak interpretatzen ditu pelikulak, amets hori aldeiz aurretik frustrazioa kondentatuta dagoela baldin badaki ere. Bere ilusioa filosofia baikor batean oinarritzen da, «nahi baduzu ahal duzu», eta espejismo horri eusten dio narrazio osoan Char-

lie Parkerren irudiari begirik kentzen ez dion bitartean. Amets hori aitzakiatzak hartuta, saxofoi jolearen eta eskultore baten arteko harremana plan-teatuko du zuzendariak, jazz «soinua zizelkatzea» baita nolabait. Ondotik, bi emakumeriko maitasun erlazioa eta arteari buruzko gogoetak tartekatuko ditu abangoa izan nahi duen bukaera luze batera iritsi artean. «Artea gauza guztien gainetik dago» dio saxofoi joleak uste batean. «Eta maitasuna?» gal-detzen dio jarraian emakume horietako batek, musikariaren ondoko isilatasun konplizea eraginez.

Gogoeta horiek hitzez nahikoak aberatsak dira, bakardadea, zauritu ondoren animaliarik arrisksuena diren hartza, basurdea eta elefentearekin alderatzen duenean, esate bate-rako, baina irudiak oso po-break dira horien aldamenen eta estudioan grabatutako musika, Archie Shepp handiak jo arren, artifiziala gertatzen da. Saxofoi joleak bukaeran zizelkatzen duen saxofoi soinuaren inpotentzia nabari zaio obrar tarteka-marteka, amets surrealistaik pantailaratu nahi dituean bereziki. Batzuetan ezin lor liteke norberak nahi duena.

A. GOSTIN

### 'PAMIETNIK ZNALEZIONY W GARBIE'

**Zuzendaria:** Jan Kidawa-Blonski. **Gidoia:** Jacek Kondracki, Jan Kidawa-Blonski, Zenon Olejniczak. **Argazkia:** Zdzislaw Najda. **Musika:** Michel Lorenc. **Aktoreak:** Olaf Lubaszenko, Olga Kabo, Edward Linde Lubaszenko.

## Mirariaren zain

Poloniako zinemarekiko debilitate ob-sesiboa dudala aitortu izan dut beti ozen. Donostiak hango filmografiaren eskaparate nahikoa kuriosoa erakutsi izan dit urterik urte gainera. Horregatik, atzokoia uzta oneko garia izango zen segurantz osoa nuen aurretiaz, zinemaldi honetako batzorde aukeratzailerak ere pelikula honen alde jotake aritu baita. Elementu on asko biltzen ziren batean, baina batetik edo bestetik, de-zeppioa nagusitu zen azkenean panfleto antikomunista eta erdi-papista hau ikusi edo nozitu ondoren.



Izenburuak konkordun baten egunerokoari erreparatzen dio itxura batean, baina ez da halakorik inondik agertzen narrazioaren estilo kapitxosoa. Protagonistaren bizitza zatikatzen duen lau atal antzeko erakusten ditu obrak, haren jaiotza, nerabezarora, heldutasuna, eta neuk behintzat zehazki zer egiten duen ez dakidan epilogo espektrala isladatuz. Sasoi bakoitzak Poloniako historiaren une esanguratsu bat agertuko du, Bigarren Mundu Gerratik hasi, Gerra Hotzarekin jarraitu, 68ko giro epelarekin segitu eta Solidarnosc sindikatuak 1981. urtean ekindako mugimenduekin bukatu. Zati edo epe desberdin horietan gertatzen direnek ez dute hitzik baina, nazien moral garbia edo komunismoarekiko eraso itsua degradanteagik baitira.

Pelikula, azken batean, demagogia itsu-itsua da, eta bukaera, berriz, estapanita bat, Zanusiren diatriba eklesiastiko haien antzekoa. Poloniarrak, nonbait, asper-asper eginda daude orain arteko erregimen guzti-guztietan eta mirariaren baten zain itxaroten dute. Wojtila izena daraman mirariaren zain. Itxuraz, non ote daude orain Wajdaren burdinazko eta mar-molezko gizonak...

## NEGU GORRIAK



TOUR 93

IRAILAK LUND

24

SUECIA

Egunkaria